

# FAMILIA, TELEBISTA ETA INTERNET ËTSAIA GURE ARTEAN?

PANTAILAK MODU KRITIKO ETA  
SEGURUAN ERABILTZEKO JARRAIBIDEAK



*Etsaia gure artean?* ; Tenemos el enemigo en casa?

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA, EUSKALTEL FUNDAZIOA ETA  
EHIGE EUSKAL HERRIKO IKASLEEN GURASOEN ELKARTEA

# GIDA





#### **ARGITARATZAILEA**

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila,  
Euskaltel Fundazioa eta EHIGE Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen  
Elkartea

#### **EGILEAK**

Esther Torres  
Miren Gabantxo

#### **ITZULPENA**

Euskaltel Fundazioa

#### **KOORDINAZIOA**

Ana Eizagirre  
Esther Torres

#### **INPRIMATEGIA**

Grafinorte, S.A.

#### **DATA**

2007ko azaroa

#### **INTERNET**

[www.ehige.org](http://www.ehige.org)

**ISBN-13:** 978-84-690-9758-8

**LEGE-GORDAILUA:** BI-114-08



# AURKIBIDEA



## TELEBISTA, GEHIEN BEGIRATZEN DUGUN PANTAILA

- . Kontuan izateko datu batzuk
- . Haurrentzako saioak. Komunikabideen negozioia
- . Ez da gauza bera ikustea eta begiratzea
- . Urrezko hamar arau familian telebista erabiltzeko



## INTERNET, HEZIKETA ALDATZEN ARI DEN PANTAILA

- .. Egon daitezkeen arrisku batzuk
- .. Nola murriztu daitezke arrisku horiek
- .. Jakin beharreko datu interesgarriak
- .. Adituek haxe aholkatzen dute...
- .. Agian interesatuko zaizu jakitea...
- .. Seguru nabigatzeko urrezko arauak
- Zer aholkatu gazteenei

Telebistak, Internetek, telefono mugikorrek eta bideo-jokoek komunikatzeko modu berrien erronkaren aurrean jartzen gaituzte. Konturatu ere egin gabe, kultura teknologikoaren pantailaz inguratu gara. Informazioaren eta komunikazioaren gizarte berri horretara egokitzen ari gara.

Era berean, Interneten eta telebistaren kontsumoak eta beste pantaila horien kontsumoak arduraz handia sortzen die familiei. Izan ere, familiak konturatzen dira kontsumo horrek, hezkuntzarako abantaila handiak izateaz gain, arriskuak ere badituela.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren, Euskaltel Fundazioaren eta EHIGE Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkartearen ustez, hausnartu egin behar da Interneten eta telebistaren erabilera arduratsu eta seguruaren gainean gutxienez. Argitalpen honek, hain zuzen, informazio erabilgarria eskaini nahi die pantailen erabileraz arduratuak dauden gurasoei. Horrez gain, seme-alaben zentzu kritikoa garatzeko ere balioko die informazio horrek, eta, hartara, tresna horiek familiaren arteko komunikazioaren etsai bihurtzea saihestuko dute.



[Etsaia gure artean?](#) | [Tenemos el ensimigo en casa?](#)

# TELEBISTA

gehien begiratzen dugun pantaila



Consell de L'Audiovisual de Catalunya-ren azken ikerketek azaltzen dute lau eta hemezortzi urte bitarteko haur eta gazteek egunean hiru ordu eta hogeita hamar minutu ematen dituztela batez beste telebista-pantailaren aurrean. Horrek esan nahi du ikasgelan baino denbora gehiago pasatzen dutela telebista-pantailaren aurrean.

Eusko Jaurlaritzaren arabera, telebista da euskal herritarrek, batez ere ikasleek, gehien erabiltzen duten komunikabidea. Dударik gabe, benetako hezkuntza-agente ez-formala bihurtu da telebista-pantaila. Tresna horien bidez, entretenimenduaz eta informazioaz gain, gure kontsumoa eta bizimodua baldintzatzen duten ideiak eta jarrerak iristen zaizkigu.

Pertsona helduak garen neurrian, telebistan botatzen duten guztia haurrentzat egokia ez dela ohartu behar dugu. Izan ere, haur-programazioa telebistako edukia % 25 besterik ez da. Hala, haur eta gazteen heziketan paper egokia jokatu behar dute familiek etxean. Horrez gain, komeni da azpimarratzea hurbileko komunikazioari eskainitako denboraren arabera, handiagoa edo txikiagoa izango dela familiaren eragina.

## KONTUAN IZATEKO DATU BATZUK

- LAU ETA HAMABI URTE BITARTEKO HAURRAK 1.500 BAT ORDU (URTEAN) EGOTEN DIRA TELEBISTAREN AURREAN, ETA, IKASGELAN, ALDIZ, 900 BAT ORDU EMATEN DITUZTE.
- ADIN TXIKIKO HIRU PERTSONATIK BATEK TELEBISTA DU BERE LOGELAN, ETA, NORMALEAN, BAKARRIK IKUSTEN DU.
- GURASOEN % 30EK BAINO EZ DU IKUSTEN BETI, EDO IA BETI, TELEBISTA SEME-ALABEKIN.

## HAURRENTZAKO SAIOAK. KOMUNIKABIDEEN NEGOZIOA



Haurrentzat gero eta saio gutxiago ematen dira, eta saio horien edukia gero eta gutxiago zaintzen dute. Gaur egun, sekulako konpetentzia dago telebista-kate publikoen eta pribatuen artean, ea zeinek ikusle gehiago erakarri; beraz, iragarkiak jartzen dituztenek audientzia handieneko saioetan inbertituko dute dirua, eta, horrela, etekin handienak audientzia handiko kateek lortuko dituzte.

Gaur egun, ideia horren arabera egiten da telebistako programazioa. Horrexegatik, hain zuzen, helduek ez dugu ahaztu behar, komunikabide eta entretenimendu- eta hezkuntza-tresna indartsua izateaz gain, publizitate-enpresen arabera etekinak lortzeko negoziua (pribatua zein publikoa) dela telebista.



*begiratuikasirakatsi*

## EZ DA GAUZA BERA IKUSTEA ETA BEGIRATZEA



*“Zertan ari zara? Telebista ikusten ari naiz”.*

Esaldi arrunta da gure eguneroko bizitzan. Ikustea jarduera pasiboa da; begiratzea, ordea, aktiboa. Zaila da pentsatzea telebistak jarrera aktiboa sustatzen duela. Baina izan liteke.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak honako estatistika hau erabiltzen du: gure hurrek, egunero, hiru ordu eta erdi ematen dituzte telebista ikusten. Europako edozein herrialdek antzeko datuak ditu. Gaur egun, ezin imajina dezakegu telebistarik gabe bizitzea. Beraz, zentzuzkoa da bizimodu hori onartzea eta gure mesedetan erabiltzea.

## **ZER EGIN DEZAKEGU?**

Gure seme-alabek beren artean saioak konpara ditzatela. Zein gustatzen zaien eta zein ez zaien gustatzen esan dezatela, eta esan ditugun programen artean ikusten dituzten ezberdintasunak adieraz ditzatela. Edo haurren programa gustukoenei erreferentzia egiten dion egunkariko berri bat ere erakuts diezaiokegu.

## **IRAKURTZERA BULTZA DITZAKEGU?**

Irakurtzen hasi aurretik trebatu egin behar da, eta horrek saiatzea eskatzen du. Bestela, oso zaila izaten da testu idatzi batean gustura sentitzea. Telebista ikusteko, ez dago trebatu beharrik. Telebistaren aurrean jarri eta eragina berehalakoa da. Beraz, liburu batek ezin dezake telebistarekin lehiatu, hasiera batean behintzat. Kasu horretan, garrantzitsua da aipatu dugun trebakuntza-kontzeptua kontuan hartzea. Hortaz, erlojua eskuetan duzula, jarri ordutegi bat irakurtzeko, eta beste bat –mugatuagoa– telebista ikusteko. Bi kasuetan komenigarria da pertsona heldu bat ondoan egotea eta umeak egiten duen jarduera bera egitea. Haurrak eredu bat behar du imitatu ahal izateko.

## **TELEBISTA-SAIO BATZUK DEBEKATU EGIN BEHAR DIRA?**

Jakina. Dirua irabaztea da telebista-kanaletako programazioen helburua. Ordainpeko telebistek alde aurretik kobratzen diete ikusleei, eta doako telebistek, berriz, ikusleak iragarkiak ikustera behartzen dituzte. Saio batzuek ez dute seme-alabek ikastea nahi dugun bizitzarekin bat egiten, eta, beraz, zilegi da horietako batzuk debekatzea.

## **NOIZ ITZALI BEHAR DA TELEBISTA?**

Lehendik ezarri dugun ordutegia bukatzean. Negoziatuta genuen programa bukatzean. Beraz, bi ideia garbi izan behar dira. Lehenengoa da ez dugula telebista etxera iritsi bezain laster piztu behar, eta, bigarrena, egunkarietan eta teletestuetan agertzen diren telebista-saioak aukeratzen ohitu behar dugula.

## **MEREZI DU FAMILIA TELEBISTAGATIK HASERRETZEA?**

Familia bakoitzak bere etxean baloratu beharreko gaia da hori. Arazoak saihesteko modu sinple bat gurasoentzako telebista bat eta seme-alabentzako beste bat erostea da. Baina horrek guraso eta seme-alabak bi espaziotan bereizten ditu, eta bi munduak gero eta gehiago urrun daitezke. Norberarena da erabakia, eta hartutako erabakiaz jabetu behar du bakoitzak. Horregatik esaten dugu, hain zuzen, telebista ikustea eta begiratzea ez dela gauza bera.

# URREZKO hamar arau

familian telebista erabiltzeko

- Etxean egiten diren ekintza guztiak (hala nola telebista ikusi, irakurri...) bilduko dituen ordutegi bat egiten lagun iezaiezu zure seme-alabei. Komeni da denak ados jartzea.
- Ez ezazu telebista ohitura gisa piztu. Adibidez, ez ezazu piztu etxera iritsi bezain laster.
- Programazioa aukeratzen (egunkarrietan, teletestuan, Interneten...) erakutsi iezaiezu zure seme-alabei.
- Programaziotik, interesatzen zaizuna bakarrik begira ezazu.
- Eskaini iezaiezu denbora alde zurretik zure seme-alabekin adostutako programak ikusteari.
- Ez ezazu telebista ikusi adostutako ordutegitik kanpo.
- Partekatu telebista ikusteko uneak familiako beste kideekin, ahal den neurrian.
- Aipatu eta kritikatu familiarekin ikusten dituzun telebista-saioak.
- Irakatsi iezaiezu zure seme-alabei telebista urrutia egiteko ikusi behar dela. Horrela, haien behatzeko eta aztertze gaitasuna landuko duzu, programa bat dirudiena baino gehiago izan baitaiteke.
- Goza ezazu aktiboki telebista-programazioaz.



# INTERNET

heziketa aldatzen ari den pantaila



Gure eguneroko bizitzaren parte bihurtu dira Komunikazioaren eta Informazioaren Teknologiak. Interneten sorrerak giza komunikaziorako aukera izugarriak ireki ditu, eta hezkuntzarako abantaila handia eta helduentzako zein haurrentzako baliabide garrantzitsua ere izan da. Interneten alderdi positibo eta onuragarriak asko badira ere, baditu ezagutu beharreko zenbait arrisku ere. Gizartean dagoenaren isla da Internet. Gizartearen alderdi onak eta txarrak Interneten ere badaude. Askotan, edukiak ez dituzte informatika eta entretenimendu-enpresek ezarritako editoreek sortzen, erabiltzaile partikularrek baizik. Interneten ez dago edukien kontrolrik. Beraz, Interneten dabilzan adingabeok haur-pornografiarekin, indarkeriarekin edo arrazakeriarekin lotutako irudiak eta testuak ikus ditzakete erraz asko. Horrez gain, kontuan izan behar da haurrek jakin-nahi handia izaten dutela, eta argi dago, ordenagailu-pantailaren aurrean bakarrik egoten badira, haienzako gokiak ez diren edukiak aurki ditzaketela.

Gazteena kolektibo gogotsua da, batez ere zerbitzu interaktiboetarako dagokienez, hala nola txata edo berehalako mezularitza. Jokoei edo musikari buruzko web guneak ere oso ezagunak dira.

## EGON DAITEZKEEN ARRISKU BATZUK



- Sexu- edo bortxa-material ezegokia erakusten da, eta gehienetan P2P sareetatik dator material hori, fitxategiak partekatzen dituzten erabiltzaileetatik.
- Datu pertsonalak zabaltzen dira. Esate baterako: gurasoen kreditu-txartelen zenbakiak, gakoak edo pasahitzak, izenak, posta-helbideak, telefono-zenbakiak eta abar. Datu horiek P2P sareen bidez ere atera daitezke; izan ere, horiek gure ordenagailuetan karga daitezke informazio-mota hori ateratzeko gai diren espioi-programekin (Spyware).

- Txat-aren edo posta elektronikoaren bidez hitzorduak egiten dituzte, eta, horien ondorioz, nahi ez duten pertsonekin eta nahi ez duten tokietan geratu daitezke.
- Posta elektronikoaren edo txataren bidez desatseginak, iraingarriak eta oldarkorrak izan daitezkeen mezuak jaso ditzakete. Mezu horiek drogak erabiltzera, ekintza erasotzaileak gauzatzera edo erakunde sektarioetan sartzera bultzatu ditzakete.
- Erosketak egiteko aukera edo linean ausazko jokoetan parte hartzeko aukera ematen duten zerbitzuak eskaintzen dira. Horrek dirua gastatzea ekartzen du.
- Jabetza Intelektualaren Legeak babestutako P2P sareetatik fitxategiak deskargatzeko aukera izaten dute. Ondorioz, legez kontrako ekintza bat gauzaten ariko lirateke, eta horien arduradun subsidiarioak gurasoak lirateke, deskarga egiten dutenak adin txikikoak badira.
- Internetekiko mendekotasun-arazoak sor daitezke, eta horrek ondorio psikologikoak eta gizartean ez egokitzea eta bakartzea ekar dezake.

## NOLA MURRIZTU DAITEZKE ARRISKU HORIEK

*Erakutsi zure seme-alabei Internetetik babesten*



Bizitzako beste zenbait alderditan bezala, dirudienez, irtenbidea ez da gure seme-alabei Interneten nabiga dezaten debekatzea. Babesten erakutsi behar zaie, bizitza errealeko beste alderdietan bezala. Adibidez, kalean auto batek harrapatzeko arrisku hipotetikoak ez du esan nahi gure seme-alabek etxetik atera behar ez dutenik, arriskurik ez izateko segitu beharreko arauak erakutsi behar dizkiegula baizik. Adibidez, errepidea gurutzatu baino lehen begiratu egin behar dutela erakusten diegu, edo pertsona ezezagunekin ez dutela joan behar...

Internet ez da desberdina, gure seme-alabei erakutsi egin behar diegu arriskua galarazteko zer behar duten eta zer ez duten egin behar egoera jakin batzuetan. Azken batean, egokiena heztea da, abusuak edo arriskutsuak izan daitezkeen egoerak galarazteko.



## JAKIN BEHARREKO DATU INTERESGARRIAK

- EUSKAL ESTADISTIKA INSTITUTUAK (EUSTAT) 2007KO IRAILEAN EMANDAKO DATUEN ARABERA, 346.000 FAMILIA INGURUK, %43,4K, DUTE ETXEAN INTERNETEKO SARBIDEA.
- HAMALAU URTETIK GORAKO EAeko BIZTANLEEN % 45,9K NABIGATZEN DU INTERNETEKO ITSASOAN.
- IKASLEEN % 96K ERABILTZEN DU INTERNET.
- FAMILIEN % 32K BAKARRIK JARTZEN DITU ARAUAK INTERNET ERABILTZEKO GARAIAN (EUROPAN, BATEZ BESTE, % 45EK).

“**Internet segura**” azterketaren arabera, elkarrizketan parte hartu duten adin txikiko enrdiak baino gehiagok laguntzailerik gabe nabigatzen du, eta txat-eko aretoak erabiltzen dituzten bost adin txikikoetatik batek jasan du pedofiloen erasoak. Ikerketa berak azpimarratu zuen egoera horrek nerabeentzat dakarren arriskua, **txatak** oso gustuko baitituzte. Txatetako idatzizko hizketaldietan murgilduta, zaila gerta dakieke hizketakidearen benetako nortasuna ezagutzea; horrez gain, komunikazio birtual hori egiazko bizitzara lekualda dezakete, eta horrek pentsaezinezko ondorioak ekar ditzake. **Internerako bideokamera** (edo webkama) izan ezean, Interneten ez ditugu ikusten ez entzuten konektatuta dauden gainerako erabiltzaileak; horrek aukera ematen du beste nortasun bat hartzeko. Adibidez, “12 urteko neskatosa” dela dioena 40 urteko pederasta izan daiteke.

Horrez gain, azterketa honek beste arrisku bat ere aipatzen du: adin txikikoak **jokoen orrietan** bakarrik sartzeko arriskua. Horietako asko piratak dira, eta, agertzen diren leihoetan (pop-up-ak), batez ere, pornografiako iragarkiak agertzen dira. Horrelako leihoak automatikoki irekitzen dira orrian, eta edonorentzat **iraingarriak izan daitezkeen irudiak** erakusten dituzte zuzenean.

Internet hurrek eta nerabeek euren kabuz, helduen laguntzarik gabe, erabiltzeak poltsikoan ere kalteak eragin ditzake. Internauten Elkarteak “*porno dialer*”en erasoan gorakada hauteman du: programa horiek eduki pornografikoak eskaintzen dituzte kreditu-txartelak erabiltzeko beharrik gabe. Egiazki, programa horiek ordenagailutik telefono-konexioa egiten dute modemaren bidez, tarifa bereziko telefono-zenbaki bat markatuz. Tarifa hori ohikoa baino askoz garestiagoa izaten da, eta neurririk gabe garestitzen du telefono-faktura.



## ADITUEK HAUXE AHOLKATZEN DUTE...



Egokia litzateke ordenagailua guztiok ikusteko moduan egotea, familia guztia egoten den guneren batean (egongelan, liburutegian), eta ez haurren logelan.

Arauk negoziatzea eta ezartzea aholkatzen da, bereziki, ordenagailuaren aurrean egoten diren denborari buruzko arauak.

Erakutsi seme-alabei ez dutela sinetsi behar Interneten ikusten duten guztia.

Eduki lizunen bat jasotzen badute edo eduki lizun batera sartzen badira, ez egotzi errua zuzenean seme-alabei; agian, ustekabeen sartu dira.

Adinaren arabera, informazioa iragazten duten eta web gune seguruak bilatzen dituzten programa babesleak instalatzea aholkatzen da.

Ezinbestekoa da etxean eta eskolan oinarrizko segurtasun-arauak ezartzea, adibidez, Internet eguneko zer unetan erabil daitekeen zehaztea.

Komeni da adin txikikoekin zuzenean Interneteko erabilerari, erabilgarritasunari eta arriskuei buruz modu irekian hitz egitea. Segurtasunez nabigatzen erakutsi behar zaie. Ezinbestekoa da oinarrizko erabilera-arauak eta kontuan hartu beharreko legezko alderdiak azaltzea.

Internet izan dadila elkarrekin nabigatzeko ekintza ireki eta familiarra; jakin norekin komunikatzen diren... edo ezagutu erabiltzen dituzten zerbitzuak eta web guneak.

Arriskuren bat detektatuz gero, jarri harremanetan agintariekin edo gai horrekin lotutako erakunderen batekin (adibidez, *Protégeles* edo *Acción Contra la Pornografía Infantil*).

Komeni da gurasoek ikastetxeekin hitz egitea, aholkuak emateko eta gaiak eskolan nola aritzen diren jakiteko.

## AGIAN INTERESATUKO ZAIZU JAKITEA...



Teknologien erabilera aztertzeke egin den azken ikerketa baten arabera, 'hurrek, batez beste, helduek baino gehiago erabiltzen dute Internet'. Datu deigarria, benetan. Hori da *Komunikabideak Aztertzeke Elkartek* (AIMC) 2004an egin zuen 'Interneteko erabiltzaileei egindako seigarren inkesta'ren ondorioetako bat. Datu horien arabera, Interneten erabiltzaileen erdia 8-13 urte bitarteko haurrak dira. Haur gehienak etxetik sartzen dira Interneten, eta webean nabigatzeko, txateatzeko eta sarearen bidez jolasteko erabiltzen dute batik bat. Nafarroako Unibertsitateak egindako azterketa baten arabera, 11 urteko haurren % 64k bakarrik nabigatzen dute sarean, inolako kontrolik gabe, horrek dituen arriskuak kontuan hartu gabe.

# SEGURU NABIGATZEKO urrezko arauak

## ZER AHOLKATU GAZTEENEI

- 1 Funtsezkoa da honako hau argi izatea: oso arriskutsua da Interneten bidez bakarrik ezagutzen dituzun pertsonekin biltzea. Ez da inoiz halakorik egin behar.
- 2 Ez eman inoiz informazio pertsonalik Interneten bidez.
- 3 Ez bidali identifikatzeko balio dezaketen datu pertsonalak: Ez izenik, ez abizenik, ez adinik, ez telefono-zenbakirik, ez etxeko edo ikastetxeko helbiderik eta abar. Ez eman banku-daturik edo kreditu-txartelen zenbakirik, ez zurea, ez zure familiartekoenik, Internet bidez lapur diezazuten saihesteko.
- 4 Zure nortasuna babesteko, erabili izengoiti edo ezizenak (nickname ere deitzen zaie).
- 5 Ez argitaratu zure aurpegia edo gorputza agertzen den argazkirik sarbide publikoa duten web orri edo eztabaida-taldeetan.
6. Ez sinetsi Interneten ikusten duzun guztia. Pertsona asko gezurretan aritzen dira.
- 7 Ez klik egin ezagutzen ez dituzun pertsonen mezu elektronikoa agertzen diren esteketan. Esteka horiek nahi ez duzun guneetara eramane zaitzakete, edo ordenagailua kutsatuko duten birusak deskarga ditzakete.
- 8 Zuk edo zure inguruko norbaitek jazarpen-mezuren bat, sexu-jazarpenekoa edo mehatxuzkoa jasotzen baduzue, esan gurasoei. Horrez gain, aukera duzu ISPra kopia bat bidaltzeko eta laguntza eskatzeko. ISP ingelesezko Internet Service Provider-en (Interneteko Zerbitzuen Hornitzailea) da; hau da, zure linea konektatu duen enpresa (bi sareak desberdinak eta independenteak baitira).
- 9 Instalatu zure ordenagailuan birusen kontrako programa on bat, honako hauetatik babesteko: birus ezagun eta ezezagunak, zure ordenagailura baimenik gabe sartzea (hacker-ak), zabor-posta (spam-a), zure jokamoldea miatzen duten programak (spywarea), zure deien norabidea aldatzen duten programak (dialerrak) eta Interneteko gainerako mehatxuak.
- 10 Ondo pasa surfeatzan!**